BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1076

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 10ekoa, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarena; honen bidez izendatzen dira erakunde publikoek, esku-hartze sozialaren esparruan, teknikariak eta/edo administrariak kontratatzeko diru-laguntzen ebazpen-proposamena formulatzeko ardura duen kide anitzeko organoko kideak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2013ko abenduaren 18ko Aginduaren bidez onartu ziren erakunde publikoek esku-hartze sozialaren esparruan teknikariak eta/edo administrariak kontratatzeko eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak. Agindu horren 8.3 artikuluaren arabera, diru-laguntzak lehiaketa-prozeduraren bitartez ebatziko dira, eta kide anitzeko organo bat egongo da, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak izendatutakoa; kide izango dira, bestalde, Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria –lehendakari izango da– eta Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako gutxienez bi pertsona eta gehienez lau pertsona, eta horietako bat idazkari gisa jardunago du.

Esandakoarekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

Pertsona hauek izendatzea erakunde publikoei, esku-hartze sozialaren esparruan, teknikariak eta/edo administrariak kontratatzeko diru-laguntzen ebazpen-proposamena formulatzeko ardura duen kide anitzeko organoko kide.

Lehendakaria:

Lide Amilibia Bergaretxe anderea, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.

Batzordekideak:

Lidia Prieto Espejo, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako teknikaria.

Isabel Rejado Vigalondo, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako teknikaria.

Itxaso Goikoetxea Etxebarria, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako teknikaria, idazkari izango baita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 10a.

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria,
LIDE AMILIBIA BERGARETXE.